

mendia ▸ IBILBIDEAK



Kalamua mendiko tontorretik zabala da ikuspegia. XABIER ARANGUREN

Erromesaldia Kalamuara

Eibar abiapuntu eta Elgoibar helmuga, Kalamua mendia igoko dugu gaurko txangoan


XABIER ARANGUREN

Ibilaldi honek baditu hainbat go-goeta eta azterketa bitxi. Gaur egun gazteen artean fenomeno kultural handia bihurtu da kalamua, eta zer pentsatua eman dit horrek. Gaur igoko dugun mendi ezagunarekin harremanetan jarri, eta, harekin batera, kalamuaren beste erabilera batzuk nabarmendu daitezke, esate baterako, euskaldunak antzinatik erabili dituenak. Kalamua euskal kulturaren adar bat izan da, jantzigintzan eta lokarri, soka eta lotura tresnak egokitzeke.

Eibar dugu ibilbidearen abiapuntu, armagintzan herri aitzindaria. Geroago ekin zioten bertan beste ekoizpen mota batzuei: josteko makinak, bizikletak, torlojuak eta beste industri osagai anitzak... Gauregun lantegietako asko herri-kanpora lekuz aldatu dituzte; Durangaldera eta beste industrialde berrietara.

Erreferentziak

0 km	Eibar
3,2 km	Santa Kruz baseliza
4,2 km	Usartza
6,5 km	Kalamua
9 km	San Pedro
12 km	Elgoibar



Desnibela	700 m ↑
Zailtasuna	***
Luzera	12 km
Denbora	5-6 ordu

Gure gorputzak berotzen hasteko, Eibarko geltoki nagusitik hasiko gara, eta Santa Krutzeko bidea hartu behar dugu. Horretarako, geltokitik bariante adarretik igo

eta nagusira irten behar da; orain, ezkerrean joanez, berrehun metro egin, eta ondoren, bidezidor batekin eskuinera jo maldan gora. Mendi bizkarretik gorago baratze ba-



tzuk daude, eta laster iritsiko gara baserri batera. Gure erreferentzia mendi bizkar horri jarraitzea izango da; muino bat eta landa gunea, beste baserri bat, albotik pasa eta

pinudi bat zeharkatuko dugu. Berehala ikusiko dugu etxe bat hutsik, auzoko eskola izandakoa. Gorago joan eta laster gaude Santa Krutz gainaldean. Ikuspegi zabala dago bertatik. Gure oinpean Eibar-ko *suge zaharra* ibar zuloan; bere gainean Galdaramuño eta Egoarbitza; eta Anbotoko damaren punta nagusi Bizkaia *maite* aldeari erreparatuta.

Santa Krutz baselizak baditu hainbat pasarte erromeri eta pasabide gunemoduan. Handik Arrateko erreperiderantz abiatuko gara. Asfaltotik ezkerretan Ixuako bentaraino. Ixuako mendatean jende andana biltzen da asteburuetan, auto-mendizaleen abiapuntu eta hainbat mendigoizalez ikusmira tokia *itsua* da. Bertatik abiatuko gara Usartzako bentaraino, eta handik hamabost minutura helduko gara. Toki honek funtzio berbera betetzen du, baina iturri fresko bat ere badago aukeran. Seinale batzuk esango digute zein norabide hartu behar dugun: Kalamua, Akondia... aukeran. Helburu bikoitza izango dugu Akondia aukeratzaren badugu. Azken horrek malda handia dauka gailurreraino (750 m), eta ikuspuntu mugatua. Aurrera jarraituta, Kalamuako lepora iritsiko gara, eta tartean beste muino bat igoko dugu. Handik behera zelai gunea Kalamuako eremuan.

JAITSIERA ELGOIBARRERA. Kalamuako lepotik gailurra zain dugu. Aldapa gora berriz, eta gailurrera iristean erabat harriturik geratu naiz: inork ez du ipini *Cannabis sativa* ren maketa edo gutunontzirik; Kalamuako gailurra *totem* gabe, agian erre egin dute. Goitik ikuspegi zabala dugu: Bizkaia aldera Oizko zentral eolikoa, Etzeberrian indutrigune berria, Gipuzkoa aldean Arno eta Izarraitz kare-zuriarekin eta Deba ibarra, bere indutrigunearekin, erribera ertzean.

Neure buruari galdetu diot ea noiz antolatuko duten kalamuazaleek hemen erromeria! Agian santutegi bat eraikiko dute Arratekoarri lehia egiteko, *Ave Maria baratze*koa. Itzuliko gara mendilepora, handik San Pedro auzora jaisteko. Pista batetik sartuko gara pinudi batean, eta laster aterako gara baserri batera. Hormigoiarekin batera, baserriz baserri jaitsiko gara San Pedroko elizaldera. Bertan atsedeneleku handi bat dago, ogi-tartekoa jan edo musean jarduteko. Orain asfaltoarekin 3 km ditugu Elgoibarrera iritsi arte. Lehengo bidezidorraren arrastoen berri ez dakigunez, hala beharko du.



Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko egurakien berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

www.euskalmet.net



aurrera doan herria

